



Prensa-oharra

TOSTA BANDA, aniztasunaren orkestrak, diska aurkezten du

- *TOSTA BANDAk izen bereko diska plazaratuko du abenduaren 5ean eta salgai egongo da Durangoko Azokan.*
- *Banda Euskal Herria, Eskozia, Galizia, Frisia, Irlanda, Gales eta Kornualles-eko 10 musikari eta abeslariz osatua dago.*

Bandak Tosta hitzetik hartzen du izena, europako kostalde atlantikoko hainbat hizkuntza gutxituetan txalupako bankua izendatzeko erabiltzen dena. Eskozia, Galizia, Frisia, Irlanda, Gales, Kornualles eta Euskal Herriko 10 musikari eta abeslariz osatua dago, denak hizkuntza gutxituen hiztunak direlarik. Guztiek dute beraien sustrai musikalak nahastu eta partekatze gosea, elkarrekin horiei forma berria emateko asmoz.

TOSTA BANDA Txalap.ART-ek hainbat europar kultur erakunde eta elkarteekin eginiko elkarlanaren fruitua da. Euskal Herriko bazkideak Topagunea eta DSS2016 izan dira, eta beste herrialdeen bazkide gisa Eskoziako Creative Scotland edota Ireland Arts Council prestigiodunak daude.

Oreka TX-eko kideak dira euskal ordezkariak eta taldearen oinarria osatzen dute. Mixel Ducau da bandaren musika zuzendaria eta Igor Otxoa proiektuarena. Herrialde bakoitzeko musikariak bertako bazkideen aholkularitzarekin aukeratu zituzten, gehienetan deialdi ireki bidez, taldea osatu arte.

Elkarlana Irlandako Dingle herrian eginiko egonaldi batean hasi zen. Bertan ezagutu zuten elkar musikariek eta aldez aurretik aukeratutako kantak elkarrekin lantzen aritu ziren. Beste 6 herrialdeetan emanaldi bana eskeini ondoren, prozesuaren emaitza Donostiako Elkar estudioetan grabatu zuten, Mikel F. Krutzagaren eskutik.

“Tosta Banda” da diskaren izena. Hamabi abestiz osatua dago eta guztira 47:15 minutuko iraupena dauka. Taldea osatzen duten kultura eta hizkuntza gutxituen abesti tradizionalak abiapuntu bezala hartuta, hauen berrasmatzearen emaitza da diska. Lurralde eta hizkuntz komunitate hauetako abestiaz gain, diska zabaltzen duen Tosta abestiak hizkuntza gutxitu guzti hauek batzen ditu.

Diska abenduaren 5ean plazaratuko da eta Durangoko Azokan egongo da salgai Txalapart ekoiztetxearen stand-ean.



Diskak atlantikoan barrena egiten den bidai musikatua irudikatzen du eta bidai honek apirilean izango du geldialdia Euskal Herrian. Tosta Bandak Hego Euskal Herriko areto nagusienetan aukeztuko du bere lana. Apirilaren 26an Gazteizko Principal antzokian izango dira, 27an Iruñeko Gayarre Antzokian, 28an Donostiako Kursaallean eta 29an Bilboko Arriaga Antzokian.

Fitxa teknikoa:

Proiektu zuzendaria: Igor Otxoa

Musika zuzendaria: Mixel Ducau

Musikari eta abeslariak:

Oreka TX

Harkaitz Mtnez de San Vicente
Egurrezko eta harrizko txalapartak.

Mikel Ugarte
Egurrezko eta harrizko txalapartak.

Iñigo Egia
Indiar tabla, kajoia, bendhir-a, tar, platerak, bodhram-a...

Mixel Ducau
Alboka, kitarra, banbuzko klarineta eta saxoa.

Galizia

Mónica de Nut
Ahotsa eta perkusioak.

Opera, jazz, eta musika tradizionala eta esperimentalak abesten ditu. Kantu lirikoan trebatua, Madrilgo Escuela Superior de Voz-en graduatu zen, hala nola, Galiziako kantu tradizionalan eta jazz eta musika garaikidean ere. Bere lehen diskaren arrakastaren ondoren, "Dos Fios Invisibles" aurkeztu berri du.

Gales

Gwilym Bowen Rhys
Ahotsa, mandolina eta kitarra.



Gales ipar mendebaldeko 23 urtetako folk abeslaria da. Galesera du lehen hizkuntza eta hizkuntza honetan abesten duten hainbat Galeseko taldeekin jo izan du. Bere herrialdeko musika ondare aberatsa Galesen bertan eta bere mugetatik at hedatzen aritzen da.

Frisia

Marit Talens

Ahotsa eta perkusio txikiak.

Jazz & Pop ikasketak egiteko Arnherm-en bizi den 20 urteko Frisiako abeslaria. Ibiltzeko eta abesteko gai izan denetik dantzan eta abesten aritua, musika estilo ezberdinetako taldeekin aritu zen. Hizkuntza gutxituetako "Eurovision"-a den Liet jaialdiko irabazle izan zen 2015. urtean.

Eskozia

Rona Wilkie

Ahotsa eta bibolina.

Argyll-en jaiotako gaelikoz abesten duen biolin jotzailea da. 2012an BBC Scotland-eko Musika Tradizionaleko musikari gaztearen saria jaso zuen.

Irlanda

Caoimhín Ó Fearghail

Ahotsa, gaita irlandarra eta buzukia.

Mendebaldeko Waterford 'Gaeltacht' edo Irlandako gaelikoz mintzatzen den zonaldeko An Rinn-eko jatorria duena. Tin-whistle-a 8 urte zituela ikasi zuen, eta handik lasterrera hasi zen uilleann gaitak jotzen. 2014. urtean Irlandako Urteko Musikaririk Onenaren saria irabazi zuen. Caladh Nua eta Danú taldeko kide da.

Kornualles

Bec Applebee

Dantza keltiarra eta ahotsa.

Internazional mailan Kornualleseko musika tradizionaleko ordezkari den Dalla taldeko kide da.